

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DULANTZIKO UDALA

#### **2018ko lehenengo hiruhilekoko tasa kobratzea, zabor bilketarena, ur hornidurarena eta estolderia eta arazketarena**

Nik, Joseba Koldo Garitagoitia Odriak, Dulantziko alkate naizen honek (Dulantzi, Araba).

Jakinarazten dut: 2018ko maiatzaren 1etik ekainaren 30era arteko egun baliodunetan (biak barne) kobratzeko moduan jarriko direla, borondatezko epean, 2018ko lehenengo hiruhilekoko ordainagiriak.

- Zabor bilketaren tasa.
- Ur horniduraren tasa.
- Estolderia eta arazketaren tasa.

Ordainketa helbideratuta eduki ezean, borondatezko epean banku bulegoetara joanez egin ahal izango da ordainketa, hain zuzen, etxean jasoko den kobrantza abisuan aipatzen diren bulegoetan.

Era berean, zergadunei jakinarazten zaie ordainketa banku erakundeen bidez helbideratu ahal dutela, hala xedatzen baitu Dirubilketaren Arautegiak.

Ordaintzeko epe hori bukatutakoan, premiamenduko betearazte bidea hasiko da, eta ordaindu gabeko kuotak ehuneko 5eko errekaruarekin kobratuko dira, hala xedatzen baitu aipatutako arautegiak 96. artikuluan.

Dulantzi, 2018ko maiatzaren 14a

*Alkatea*

*JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA*